



MAIATZAREN 1erako MANIFESTUA

Pertsoneri lehenetasuna emanaz Prekarietate iraingarriari ez

Oraingoan ere, **Maiatzaren 1aren harira, Lanaren Nazioarteko Eguna**, Lan Duinaren aldeko Eliza Ekimena sustatzen dugun erakundeok bat egin dugu **San Jose langilearen egunean, langile guztion eguna**. Lanaren izpiritu sortzaileari balioa eman nahi diogu, eta lan prekarietatearen aurkako aldarrikapena egin; izan ere, egungo lan-harremanen sistemaren ezaugarri nagusia da eta langileen eta beren senide guztien eskubideak urratzen ditu.

Lan duina Garapen Iraunkorrerako Helburuen artean dago; eta, horretaz gain, gizateria osoaren kohesioa eta justizia soziala lortzeko funtsezko elementua da.

Zaragozako Cesarrek esaten duen moduan, *“enpresek eskaintzen dizkidaten ia lan guztiak prekarioak dira; ordu solteak, aldi baterako ordezkapenak... horrela ezin da bizimodu duinik izan. Lan mota horiek estres handia sortzen didate; etorkizunera begirako ziurgabetasun horrek beldurra ematen dit. Horregatik, maiatzaren 1ean kalera irtengo naiz, beste kide batzuekin batera, lan duina izateko eskubidearen alde”*.

Lan-prekarietatea eragin nabaria izaten ari da jende askorengan: pobrezia kronikoko egoeran dauden gazteengan, ezin baitute bizi-proiekturik garatu; familiengan, oinarrizko beharrezkoak estaltzeko arazoak izaten ari baitira, hala nola etxebizitza, argia, arropa, jatekoa edota medikamentuak; eta pertsona nagusiengan, pentsio iraingarrien ondorioz kalitaterik gabeko zahartzarua izaten ari baitira. Sistema kapitalista bidegabe batek sortutako egoerak dira; lana bizitza eta duintasunerako tresna izan beharrean, kapitalaren zerbitzura dagoen baliabidea da, langileen prekarietatea eta pertsona askoren bazterkeria baliatuz, Frantzisko Aita Santuak esaten duen moduan, “deskartatuta” dauden pertsona horiena.

Lana funtsezkoa da pertsonen bizimodurako, gure komunitatea eraikitzen laguntzen baitu. Lanaren bidez, gure kualitate eta gaitasunak sustatzen, garatzen eta zabaltzen ditugu. Lanaren, ekonomiaren eta enpresaren egitekoa birplanteatu behar ditugu, gure gizartean zeharo baliogabetuta baitaude. Horretarako, politikari, agintari eta botere ekonomikoek eskatu nahi diegu gure oinarrizko eskubideak bermatzeko, denon ongizatearen aldeko gizarte bat lantzeko beharrezkoak baitira.

Lana pertsonen araberrakoa izan behar da, ez alderantziz; hala esan zuen Juan Pablo II Aita Santuak *Laborem exercens* 6 testuan. Lanaren Nazioarteko Erakundeak lanaren etorkizunari buruzko hausnarketa bat egin du, bere ehungarren urteurrena gogoan hartuz, eta prekarietatearen aurkako borrokan indarrak bateratzeko beharraz ohartarazi nahi izan dute. Horretarako, pertsonengan zentratutako programa bat sortu behar da, norbanakoen gaitasunetan, lan erakundeetan eta lan duin eta iraunkorrean inbertituz.

Hori guztia kontuan izanik, honakoa aldarrikatu nahi dugu:

■ **Pertsonak bizitza politikoaren, lan-harremanen eta lanaren beraren erdigunean jartzeko**, milioika pertsona lan duina lortzeko aukerarik gabe uzten dituen prekarietate baztertzaileria behin betiko amaitzeko. Lan duinaz ari gara, eta ez edozein baldintzatan, Frantzisko Aita Santuak ere esan zuen moduan; eta, horretarako langile erakunde, enpresa, gizarte eragile eta gobernuen arteko elkarrizketak sustatu behar ditugu.



- Botere publikoek pertsona guztiek lan duina lortzeko eskubidea izan dezaten bermatzea, lana bera duintasunaren adierazpena baita.
- **Zainketen lana** sozialki eta juridikoki aitortzea. Horretarako, gizarte politikak, genero politikak eta hezkuntza arlokoak berriro bere planteatu behar ditugu, gizon eta emakumeen artean partekatutako zainketa-prestazioak bideratzeko, eta lan arloan aukera berdintasun erreala lortzeko.
- **Lana bizitzeko da**, beraz, pertsona guztien osasun fisiko eta psikikoa bermatuta egon behar dira, baita babes soziala ere. Horregatik, zera aldarrikatzen dugu: Ez dadila lan-istripuen ondoriozko hildako gehiagorik egon.

Langile-mugimenduaren eta lan-munduarekin konprometitutako Eliza erakunde gisa, maiatzaren 1ean, San Jose langilearen egunean, **kristau komunitate guztiak gonbidatu nahi ditugu Eukaristia ospatzera**, lan-prekarietatea eta deshumanizazioa pairatzen duten guztiak gogoan hartuz.

Era berean, **sindikatuak pertsona guztientzako lan duina eskatzeko deitutako mobilizazioetan parte hartzera animatu nahi dugu jendea.**

Madril, 2019ko apirilaren 23a.